



Hondeamakinak etengabe ari dira lanean zentral termikoa izandakoaren orubean, hura erabat desegiteko lanean; tximinia bera ere pixkanaka behera doa. O. MITXELENA

# Edukiontzien trafikorako terminal berria atonduko dute portuan

Zentral termikoak okupatzen zuen lurra baliatuko dute horretarako • Zerbitzua hilaren bukaeran abiatuko da, asteroko maiztasunarekin, Pasaia eta Anberes artean

**—OLATZ MITXELENA** Pasaia Trafiko berriak erakarri nahian, Pasaia Portuak edukiontzien garrailora bideratutako terminal berria atonduko du Lezoko kaian, horretarako zentral termikoak libre utziko dituen lurrak baliatuta. Hilaren 26an egingo du proiektuaren aurkezpen formal, Gipuzkoako Merkataritza Ganberan, zerbitzua martxan jartzearekin batera.

Terminal berria egokitzeko behar diren inbertsioak aprobata ditu jada Portu Agintaritzak. Zehatu dutenez, Lezoko 1 kaian, ondoko ikatz parkean, eta zentral termikoaren orubean egingo dituzte egokitze lanak.

Eskaintza berri horrek, por-

tuarekin lan egiten duten enpresei zerbitzu berria eskaini nahi die, bereziki «enpresa esportatzaileei, eta balio erantsi altuko produktuen ekoizle direnei». Izan ere, nazioartean bezeroak dituzten enpresei, itsaso bidezko garraioak lehiakorragoak izaten lagunduko diela uste baitute portuko arduradunek.

## Elkarlanaren emaitza

Zerbitzu berria JVS Logistic enpresak kudeatuko du, baina proiektua hainbat enpresen arteko elkarlanaren emaitza dela nabaratu du Portuak. Pasaia Portuko zamaketari nagusiak eta zerbitzuaren salmentaz arduratuko diren sektoreko hain-

bat enpresak ere parte hartu dute proiektuan.

Linea berriak Anberesko (Bel-

## Ontziek ostiraletan egingo dute geldialdia Pasaia portuan

## Anberesko terminalean astelehen goizetan ariko dira

gika) Euroports/Kallo terminalean izango du atrakea, eta ondorioz, zerbitzua, hango portua helmuga duten enpresei zuzenduko diete bereziki.

Anberesko portuak zabaltzen dituen aukerei garrantzia handia eman die Pasaia. Esan dutenez, «Herbehereak eta Alemaniarekin dituen trenbide eta itsaso bidezko lotura paregabeek bereziki interesgarria» egiten dute Anberesko portua.

## Oraingoaz, astean behin

Zerbitzuak asteroko maiztasuna izango du hasiera batean. Ontziek ostiraletan egingo dute geldialdia Pasaian, 07:00etatik 21:00etara. Anberesko terminalean, aldiz, astelehen goizetan ariko dira, eta Pasaiarantz astearte eguerditan abiatuko dira.

Portu Agintaritzak jakinarazi duenez, linea berriaren lotura-

eskaintza zabaldu asmoz, hainbat ontzi konpainiarekin harremanetan ari dira orain.

## Mugarritzat

Publiko egindako adierazpenean «mugarritzat» jo du Portu Agintaritzako buru Ricardo Peñak zerbitzu berria, «enpresa txiki esportatzaileekin» lan egiteko aukera zabaltzen diolako portuari. Esan duenez, azken 20 urteetan ezin izan dute halako zerbitzurik eskaini «espazio falta zela eta». Horregatik, zentral termikoaren itxieraren berri izan eta berehala, aukera berria aztertzeari ekin zion Portuak. Esan dutenez, merkatuen azterlana egin dute lehenik, ondoren trafi-

